

ESKOLA-BARATZEAK ETA HORIEN ERABILPEN DIDAKTIKOA

Ikastaroaren helburuak

- Eskola-Baratzeak garatu nahi dituzten irakasleekin ikastaro praktiko bat egin, ikasturtean zehar egindako aholkularitza eta jarraipenean oinarritua.
- Eskola-Baratze bat gauzatzeko gidalerro eta gako nagusiak zehaztu.
- Ikasturteari egokitutako Eskola-Baratze baten plangintza gauzatu.
- Euskal ikastetxeetan Eskola-Baratzeak garatu nahi dituzten irakasleei aholkularitza eman eta haien proiektuen jarraipena egin.

Izen-ematea: www.uik.eus

Matrikula orokorra 120,00 €

Informazio gehiago

UDA IKASTAROAK CURSOS DE VERANO

Miramar Jauregia - Mirakontxa Pasealekua, 48 - 20007 Donostia / San Sebastián T.: 943 219511 - info@uik.eus

Antolatzaile nagusiak / Organizadores principales



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
UPV/EHU

BIZI BARATZEA

Ikastaroaren laguntzaileak / Colaboradores del curso



ESKOLA-BARATZEAK ETA HORIEN ERABILPEN DIDAKTIKOA

Online Ikastaroa Jakoba Errekondorekin

Irailak 17- Apirilak 26*

*Dedikazioa: 2 ordu astero



Kod. @20-18

Jadueria mota: Online Ikastaroa

Hizkuntza: Euskara

Balio akademikoa: 60 ordu

Azalpena

EAThink proiektua eta eskola-baratzeak

Elikadura burujabetza eta kontsumo arduratsua txikitatik lantzea berebizikoa da, batez ere gazteen artean ohitura kritikoak eta jarrera ekintzaileak bultzatzerako orduan.

Bide horretan, EAThink proiektuak haur eta nerabeekin, ikastetxean, gaur egungo elikadura ereduaren interdependentzia globalak eta elikadura eredu jasangarriak lantzea du helburu, bereziki metodologia parte-hartzaileak eta arazoaren ebazpenean oinarritutako estrategiak erabiliz. Azken hiru urte hauetan irakasle eta adituekin elkarlanean material didaktiko anitz landu izan da, bai Euskal Herrian eta baita proiektua garatu den Europako beste hamabi herrialdetan ere.

Ikastaro honetan zehar, **Jakoba Errekondo eta Bizi Baratzearekin** eskola-baratzeen inguruan egin den lana partekatu nahi da eta eskola-baratzea aurrera eramateko aholkularitza eta jarraipen pertsonalizatua ahalbidetu. Horretaz gain, ikastaroko beste ikasleekin esperientziak elkar trukatzeko aukera izango da. Ikasturte osorako ikastaro honek ikastetxean eskola-baratzeen erabilpen didaktikoa eginez elikadura burujabetza jorratzeko erremintak ematea du helburu.

EAThink proiektuaren inguruko informazio guztia:

euskalfondoa.org/eu/eathink/

eathink2015@euskalfondoa.org



Programa

1. UNITATEA / Irailaren 17tik 28ra

- **Ikasleen aurkezpena:** zergatik gaude ikastaro honetan eta zertarako?
- **Baratzea eskolan, zertarako?** Zer gai landu daitezke eskola-baratzearekin?
- **Agroekologia/permakultura eskolan?** Bideragarria da? Nola egin?
- * Ariketa: Ikasturteko **helburu didaktikoen zehaztapena.**

2. UNITATEA / Urriaren 1etik 31ra

- Eskola-baratzea antolatzen: **baratzearen kokapena, itxura, lurraren ezagutza eta prestaketa, oinarritzko tresneria.**
- * Ariketa : Eskola-baratzearen antolaketa.
- * Ariketa : Lurraren ikerketa eta beharren zehaztapena.

3. UNITATEA / Azaroaren 1etik 30era

- **Zer landatu gure eskola-baratzean?** Barazki errazetan errazetak, nor norekin, txandakatzea, etab.
- * Ariketa: Ikasturteko landaketa planifikatu (kopuruak, aniztasuna, txandakatzea)
- * Ariketa: Fruitarbolak planifikatu.

4. UNITATEA / Abenduaren 3tik 21era

- **Polinizatzaileak eta landare laguntzaileak.**
- * Ariketa: Landare laguntzaileak planifikatu.
- * Ariketa: Intsektarioak planifikatu.

5. UNITATEA / Urtarrilaren 7tik 31era

- **Nola egin luarra/konposta/ongarri organikoa gure eskolan?** Eskolan luarra egiteko aukerak.
- * Ariketa: Eskolan luarra egiteko planifikazioa, non, beharrezko elementuak, etab.

6. UNITATEA / Otsailaren 1etik 28ra

- **Eta neguan zer? Hazitegiak eraikitzeke sasoia:** nola egin, nola erabili, non kokatu, zer erein...
- * Ariketa: Eskolako hazitegiak diseinatu, esperimenduak egin, etab.

7. UNITATEA / Martxoaren 1etik 29ra

- **Zer egin gaitza eta izurriteen aurrean? Tratamendu naturalak** nola egin.
- * Ariketa: Eskola-baratzeko gaitz nagusiak identifikatu, beharrezko sendabelarrak identifikatu eta horien erabilpena planifikatu.

8. UNITATEA / Apirilaren 1etik 26ra

- **Zer egin uztarekin?**
- * Ariketa: bakoitzaren uztaren arabera ekintzak planifikatu.
- **Gure eskola-baratzearen entziklopedia.**
- * Ariketa: Ikasturtean zehar landutakoa dokumentu bakarrean jaso, zuzendu, doitu, etab.

Ikastaro osoan zehar ikasleen beharren arabeko aholkularitza eta jarraipena egingo da.